




EUROPAR BATZODEAREN AURREIKUSPENAK

Atzeraldi ekonomiko sakona Europan

EUROPAR BATASUNAREN BPGA Urte arteko aldakuntza tasa



Europako Batzordeak udaberriko txostenean argitaratu berri dituen aurreikuspenen arabera, Europar Batasunaren hazkundea %7,4 jaitsiko da 2020an eta, batez beste, %6,1 haziko da gero, 2021ean. Eurogunean, urteko aldakuntza tasak -%7,7 eta %6,3 izango dira 2020an eta 2021ean, hurrenez hurren. Covid-19ak eta berau geldiarazteko hartu diren premiazko neurriek Europako atzeraldi ekonomikorik sakonena eragin dute.


Pandemiak biziki eragin die eskari globalari, eskaintza kateei, lan merkatuari, ondasun eta kapital fluxuei eta, azken batean, hibernazio egoera batean murgildu du munduko ekonomia.

BPG. EUROPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2019	2020	2021	2020	2021
Europar Batasuna	1,5	-7,4	6,1	-8,8	+4,7
Eurogunea	1,2	-7,7	6,3	-8,9	+5,1
Alemania	0,6	-6,5	5,9	-7,5	+4,9
Belgika	1,4	-7,2	6,7	-8,2	+5,7
Espainia	2,0	-9,4	7,0	-10,9	+5,6
Frantzia	1,3	-8,2	7,4	-9,5	+6,2
Italia	0,3	-9,5	6,5	-9,9	+5,8
Herbehereak	1,8	-6,8	5,0	-8,1	+3,7
Portugal	2,2	-6,8	5,8	-8,5	+4,1
Irlanda	5,5	-7,9	6,1	-11,4	+2,9
Grezia	1,9	-9,7	7,9	-12,0	+5,9
Austria	1,6	-5,5	5,0	-6,9	+3,6


ALEMANIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




FRANTZIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



2020ko bigarren hiruhilekoak aurrekaririk gabeko kolapsoa ekarriko dio ekonomiari. Aurreikuspenen arabera, euste neurriak pixkanaka altxatuko dira, Covid-19 kontrolpean egon eta jarduera ekonomikoari berrekingo zaion neurrian. Moneta eta zerga politikak ere eraginkorrak izatea espero da, Europako ekonomian eragin negatiboa gutxitzeko. Hala eta guztiz ere, ziurgabetasun handia dago susperraldiaren inguruan.

2021erako aurreikuspenak hazkunde handikoak dira, eta jarduera ekonomikoa nabarmen suspertuko da. Hala ere, BPGaren mailak 2019an zeudenak baino txikiagoak izango dira.

LANGABEZIA TASA. EUROPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2019	2020	2021	2020	2021
Europar Batasuna	6,7	9,0	7,9	+2,8	+1,7
Eurogunea	7,5	9,6	8,6	+2,2	+1,3
Alemania	3,2	4,0	3,5	+0,6	0,0
Belgika	5,4	7,0	6,6	+1,6	+1,3
Espainia	14,1	18,9	17,0	+5,6	+4,2
Frantzia	8,5	10,1	9,7	+1,9	+1,7
Italia	10,0	11,8	10,7	+1,8	+0,7
Herbehereak	3,4	5,9	5,3	+2,2	+1,2
Portugal	6,5	9,7	7,4	+3,8	+1,8
Irlanda	5,0	7,4	7,0	+2,4	+2,0
Grezia	17,3	19,9	16,8	+4,5	+2,8
Austria	4,5	5,8	4,9	+1,2	+0,3

Iturria: Europar Batzordea.